

LEGEILTZARRERAKO BIGARREN ITZULIKO BOZAK EGINGO DIRA GAUR, ERREFORMISTA ETA KONTSERBADOREAK AURREZ AURRE DIRELA

Aspaldiko giro gatazkatsuenen erabakiko dituzte hauteskundeak Iranen

■ Erreformistek garaipen handia erdietsi zuten aurreneko itzulian: botoen %60tik gora eskuratu zituzten

■ Kontserbadoreek erreformisten garaipena eragotzi nahi dute nola edo hala, eta 16 komunikabideetatik 15 itxi dizkiete

■ Egunotan istiluak izan dira zenbait lekutan, eta aldaketa zaleei indarrez aurre egiteko prest agertu dira kontserbadoreak

Idurre Eskisabel / Donostia

IRANGO Legebiltzarreko hauteskundeetako bigarren itzulia egingo dute gaur: Parlamentuko 290 aulkietatik 66 erabaki gabe geratu ziren aurrenekoan, otsailaren 18an, eta haien jabeak hautatuko dituzte 52 barrutitan, 132 hautagaiaren artean.

Nolanahi ere, oso giro berezian egingo dira gaurko bozak, aurreneko itzuliko emaitzek gordintasun handiz azalarazi baitute Irango erreformisten eta kontserbadoreen arteko gatazka. 1979ko Iraultza Islamikoaren bidez indarrean jarritako erregimen teokratiko zurruna mantendu nahi dute kosta ahala kosta kontserbadoreek.


Erreformistek, berriz, aro bat amaitu dela uste dute, eta haize berriak eraman nahi dituzte Iranera. Erregimena aldatu zaleen zakua zabala eta anitza da —islamista moderatuetatik hasi eta mugimendu ezkertiarretarainoko jendea biltzen dute—, baina, oro har, guztiek bat egiten dute botere egitura zibil bat egungo hierarkia erlijiosoaren aurretik jartzeko helburuan.

Aurreneko itzulian, erreformistak izan ziren irabazle: botoen %60tik gora eskuratu zituzten. Teheran hiriburuan, esaterako, garaipen itzela lortu zuten: barruti guztietan eurak izan ziren garaile eta kontserbadoreek ez zuten legebiltzarkide bat bera ere eskuratu.

Baina horrek ez du esan nahi Iran epe laburrean aldatu behar den bidetik abiatuko denik. Izan ere, kontserbadoreek gogor heldu diote botereari, eta gainera, ez dutela nola edo hala etsiko ohartarazi dute. Ohartarazi ez ezik, erakutsi ere bai, eta hainbat barrutitan aurreneko itzuliko emaitzak balio gabe utzi ditu kontserbadoreen menpe dagoen Iraultzaren Zaindarien Batzordeak.

Irango botere egitura konplexuak beren asmoak aurre-

Hauteskundeak eta botere egitura Iranen



J. APEZTEGIA



VAHID SALEMI / AP

Otsailaren 18an, aurreneko itzuliko bozketan, boto txartelak betetzen zenbait emakume irandar.

ra ateratzeko aukera handia ematen die kontserbadoreei: Buruzagi Nagusia dago Gobernuaren gainetik eta Zaindarien Batzordea Legebiltzarrarenetik. Batak zein besteak betorako eskubidea dute eta kontserbadoreen

esku daude. Gobernu erreformisten esku dago 1997an Mohammad Khatami lehendakari aldaketa zaleak hauteskundeak irabazi zituenetik, baina Legebiltzarra orain arte kontserbadoreen esku egonenez ez du erre-

forma handirik aurrera eramateko paradarik izan.

Beraz, gaurko bozak garrantzi handikoak dira, eta hortaz erabat ohartuta daude kontserbadore zein erreformistak.

Kontserbadoreek, botereari

eutsi nahi horretan, erabaki gogorak hartu dituzte erreformisten aurka —batez ere, komunikabideen kontra—, eta tentsio nabarmena sortu da. Azken bi asteetan erreformisten 16 kazeta eta aldizkarietatik 15 itxi dituzte. Neurri murriztaile horiek jende askoren haserre piztu dute, eta Iranen azken 20 urteetan oso ezohikoa izan arren, manifestazio jendetsuak eta protestak eragin dituzte. Istiluak ere izan dira batzuetan.

Teheran hiriburuko horma batean Haxemi Rafsanjani lehendakari ohi eta hautagai kontserbadorearen aurka agertu den esaldi batek ederki asko erakusten du tentsio giroa: «Gaizki egin duzu eta ostiralek are eta okerrago», esaten du Irango kaleetan normaletik kanpokoa den tonu gaitzesgarria erabiliz.

Izan ere, kontserbadoreak botereari tinko heltzeko prest zeudela esan zuen Rafsanjanik ostiraleko predikuan, «baita martiriak bezala hiltzeko ere». Armada alde dutela kontuan izanda, ez da txantxetan hartzeko oharra.